



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Derioko Udala

Derioko gazteei etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko oinarri orokorrak arautzen dituen Ordenantzaren behin-betiko onarpena.

Derioko Udalbatzak, 2023ko urtarrilaren 31n egindako ohiko bilkuran Derioko gazteei etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko oinarri orokorrak arautzen dituen ordenantza onartu du.

Espedientea jendaurrean egon da 30 eguneko epean, 2023ko otsailaren 14ko, 31. zenbakiko Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratuz.

Epe horretan alegaziorik, erreklamaziorik edo iradokizunik ez izanik, behin-behineko erabakia behin betikotzat jo da automatikoki, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoari jarraituz. Beraz, Derioko gazteei etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko oinarri orokorrak arautzen dituen ordenantzaren testu osoa Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratzen da.

Derion, 2023ko martxoaren 29an. — Idazkaria



ERANSKINA

**DERIOKO GAZTEEI ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO LAGUNTZAK EMATEKO
OINARRI OROKORRAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

ZIOEN AZALPENA

Etxebizitza eskuratzea da biztanleria gazteenaren emantzipazio-prozesuko oztoporik garrantzitsuenetako bat. Horregatik, Derioko Udalak, laguntza hauen bidez, alokairua sustatuko duen etxebizitza-politika publikoa sustatzeko ahaleginak egin nahi ditu. Etxebizitzaren Legeak lehenatasun argia ematen dio alokairuari, Euskal Autonomia Erkidego-ko etxebizitza-egoera konplexuari erantzuteko modurik egokiena eta bidezkoena delako. Hori dela eta, Derioko Udalak laguntza zuzen hauen deialdia egin du, ohiko etxebizitza iraunkorraren alokairu-errentaren zati bat ordaintzeko.

1. artikulua. — Diru-laguntzaren xedea eta helburua

Oinarri hauen xedea da Derion erroldatuta dauden 18 eta 35 urte bitarteko gazteei etxebizitzak alokatzeko laguntzak emateko baldintzak arautzea.

Diru-laguntzaren helburua da gazteei laguntzea beren emantzipazio bidean udalerrri osoan alokairu-erregimenean, eta udalerriko eremu guztietan alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko aukera sustatzea.

Derioko udalerrian kokatutako etxebizitza libre bat alokatzeagatik ordaindutako errentaren ehuneko batek jasoko du diru-laguntza, ordenantza honetan ezarritako baldintzen arabera.

2. artikulua. — Araubide juridikoa

Gazteei alokairu-laguntzak ematea, ordenantza honetan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte: Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa, eta Derioko Udalak diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea, baita geroago onartuko den gainerako diru-laguntzei buruzko araudia.

3. artikulua. — Onuradunen betekizunak

Laguntzen onuradunak izan daitezke, deialdia argitaratzen den egunean eta diruz lagundu daitekeen epean, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2008 Lege Orokorrean ezarritakoaz gain, honako baldintza zehatz hauek beteko dituztenak :

1. Diru-laguntza eskatzen den egunean 18 eta 35 urte bitarteko adina izatea.
2. Ohiko etxebizitzaren alokatze-kontratu baten titularra izatea, Hiri-errentamenduei buruzko azaroaren 29/1984 Legearen eta ondorengo aldaketan arabera formalizatua.
 - Kontratuak, gutxienez, urtebeteko iraupena izan beharko du
 - Etxebizitza-kontratuaren titular guztien artean ordaindu beharreko errenta osoaren zenbatekoa oinarri espezifikoa eta deialdian zehaztuko da.
 - Etxebizitzan erroldatuta dauden guztiek alokatze-kontratuaren titular gisa agertu beharko dute.
3. Eskatzaileak erroldatuta egon beharko du eskabidea Derioko udalerrian aurkeztu duenean.
4. Diru-laguntzaren xede den etxebizitzan erroldatuta egotea diruz lagundu daitekeen aldirian, eta ohiko etxebizitza iraunkor gisa erabiltzea. Etxebizitza okupatzeko ohitura dagoela ulertuko da urtean jarraian hiru hilabete baino gehiago hutsik ez dagoenean, salbu eta bidezko arrazoia dagoenean.

Alokatze-kontratuaren titularrak eta horien kargura emantzipatu gabe dauden 18 urtetik beherakoak bakarrik egon beharko dira etxebizitzan erroldatuta. Diruz lagundu daitekeen aldirian erroldan altak edo bajak egonez gero, behar bezala justifikatu beharko dira, etxebizitza horren alokatze-kontratuan titulartasuna aldatuz.



5. Etxebizitza baten jabari osoaren titularra ez izatea, ezta jabetza bakarra, edo azalera-eskubidea edo gozamina ere, salbu egiaztatzen bada etxebizitza hori ez dagoela eskura banantze- edo dibortzio-arrazoiengatik, edo ezin dutela bertan bizi bere borondatearekin zerikusirik ez duen beste edozein arrazoiengatik, behar bezala egiaztatuta.

Baldintza horretatik salbuetsita daude etxebizitza baten jabetzaren, azalera-eskubideko jabetza soilaren edo usufruktuaren edozein ehunekoren titularrak diren pertsonak, baldin eta inguruabar hauetakoren batean badaude:

- Etxebizitzak ez ditu bizigarritasun-baldintzak betetzen.
- Banantze- edo dibortzio-prozesu baten ondoren edo izatezko bikoteak azkenetako prozesu baten ondoren, etxebizitza judizialki esleitu bada bikoteko beste kidearen familia-bizileku gisa. Kasu horretan, hori egiaztatzen duen epaia edo hitzarmen arautzailea aurkeztu beharko da.
- Segurtasun-arrazoiengatik beren etxebizitza utzi behar izan duten genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak. Kasu horretan, udaleko gizarte-zerbitzuek egoera hori egiaztatuko dute.
- Mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonak, sarbideei eta jasogailuei buruzko zehaztapenak betetzen ez dituen eraikin bateko etxebizitza dutenak, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituenak.

Azken salbuespen hori egin daiteke eskatzailearentzat, baldin eta desgaitasuna duen eta mugikortasun urri iraunkorra duen pertsona bat ardurapean badu.

6. Etxebizitzaren errentatzailearekin edo errentatzailearen bizikidetzaren unitateko edozein kidearekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko hirugarren mailara arteko familia-loturarik ez izatea.
7. Onuradun bakar bat ere ez izatea alokairu-kontzeptuko beste inolako laguntza-aren onuradun diruz lagundu daitekeen aldi osoan.

Diru-laguntza honen ondorioetarako, bizikidetzaren unitate hartzen da etxebizitza bat ohiko moduan eta modu iraunkorrean bizi eta baliatzen duen pertsona edo pertsona multzoa, egonkortasunerako bokazioa duena eta alokairuan diruz lagundu nahi dena, horien guztien arteko harremana edozein dela ere.

Bizikidetzaren unitate motak: A, B eta C

- A) Pertsona bakarrekoa, kontratuaren titular bakarra denean eta errentan emandako etxebizitzan pertsona bakarra bizi denean.
- B) Hainbat pertsona daude bizi diren etxebizitzaren kontratuaren titular gisa, baina ez daude ezkontuta, eta ez daude izatezko bikote gisa inskribatuta.
- C) Pertsona bat baino gehiago daude bizi diren eta ezkontuta edo izatezko bikote gisa inskribatuta dauden etxebizitzaren kontratuaren titular gisa.

4. artikulua. — Etxebizitzek bete beharreko baldintzak

Alokairupeko etxebizitzek, halaber, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Alokaturako etxebizitzak Derioko udalerrian egon beharko du eta dagokion bizigarritasun-lizentzia izan beharko du.
- Etxebizitzak Udal Erroldan alta emanda egon beharko du. Derioko Udalak baldintza hori egiaztatuko du.
- Salbuetsita daude:
 - Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak (azpierrementamendua barne).
 - Azpierrementamenduak.
 - Logelen errentamenduak (gela eskubideak).



- Etxebizitza gisa erabiltzen diren eta hirigintza-araudiak eskatzen dituen bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten lokalak.
- Sasoiko etxebizitzak.
- Bizigune programaren barruan dauden alokairu etxebizitzak eta Alokabide SAK kudeatutako ASAPkoak.

Salbuespen gisa, Derioko udalerrian helbidea aldatzea onartuko da, baldin eta kontratu berri bat sinatzen bada eta laguntza emateko oinarri hauetan aurreikusitako gainerrako baldintzak betetzen badira.

5 artikulua. — Errentari buruzko betekizunak

5.1. Onuradunek ezin izango dituzte gainditu deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan ezartzen diren diru-sarrerak.

5.2. Diru-sarreraren osaerari dagokionez, mugaeguneratutako azken zerga-ekitaldiko kapital-errentetatik eratorritako etekin gordinen zenbatekoak ezin izango du, oro har, urteko 601,10 euroko zenbatekoa gainditu.

5.3. Diru-sarrera konputagarriak:

- a) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkeztu dutenak. Honako hau zenbatuko da:
 - a. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiarena.
 - b. Lan-etekinei aplikatutako hobariak.
 - c. Errenta salbuetsiak, halakorik balego.
- b) Errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkeztu beharrik ez duten pertsonak honako diru-sarrera hauek zenbatuko dira.
 - a. Lan-etekin eta kotizaziopeko langabezia-prestazioen kasuan, kontzeptu guztiengatik egiaztatutako diru-sarrera gordinaren %95.
Lan-etekinatarako, PFEZaren atxikipenengatik ziurtagiri ofizialak bakarrik hartuko dira kontuan (10 T eredu).
 - b. Pentsioen eta langabezia-sorospenen kasuan, baita kargarik gabeko dieten kasuan ere, kontzeptu guztiengatik egiaztatutako diru-sarrera gordinen % 100.
 - c. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkeztu behar ez duten etxeko langileen kasuan, laneko diru-sarrerak egiaztatu beharko dituzte, PFEZaren atxikipenen ziurtagiri ofizialaren bidez (10 T eredu).
 - d. Halakorik ez badago, froga-balio baliokidea duten agiri gisa onartuko dira:
 - Soldata jasotzen duen lan-kontratuaren kopia, ondoren idatziz egin edo formalizatu bada.
 - Soldatak sartu edo ordaindu izanaren bankuko frogagiriaren kopia, enplegu-emailaaren izena jasotzen duena.
 - Enplegatzaileak sinatutako soldaten ordainagiriaren (nominen) kopia.
 - Enplegatzailearen edo enplegatzaileen zinpeko aitortpena, horien zenbatekoari buruzkoa.
- c) Pertsona bananduak, dibortziatuak eta alargunak:

Pertsona bananduei, dibortziatuei eta alargunei eta izatezko bikoteko kideei dagozkien diru-sarrerak zehazteko, horietako bat hiltzen bada edo bikotea desegiten bada, egiaztatu beharreko diru-sarrerak ezkontza edo bikote-egoera indarrean zegoen aldi bati dagozkionak badira, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

 - a. Araubide ekonomikoa ondasunen banantzea bada, askatzailearengandik datozen diru-sarrerak bakarrik zenbatuko zaizkio.
 - b. Gainerakoan, ezkontzaren edo izatezko bikotearen diru-sarreraren % 50 zenbatuko da.



Halaber, egiaztatu beharreko diru-sarrerak pertsonak bananduta edo dibortziatuta zeuden aldi batekoak badira, diru-sarreraren zenbateko osoa kalkulatzeko, ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen aldeko elikagaiengatiko eta konpentsazio-pentsioengatiko urtekoei dagozkien zenbatekoak kenduko dira, baita hileko hipoteka-kuoten zenbatekoa ere.

6. artikulua. — Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko modua

1. Eskabideak oinarri espezifikoetan eta deialdian ezarritako moduan aurkeztuko dira. Eskaera indibiduala izango da, pertsona fisiko bakoitzeko, edozein dela ere, eskatzailearen bizikidetzaren unitate mota.

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskatzaileek, eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, behar bezala beteta:

- A. Familia liburuaren fotokopia, hala badagokio.
- B. Alokatzeko-kontratuaren fotokopia, horren titular diren eta bizikidetzaren unitatea osatzen duen pertsonen sinatua.
- C. Oinarri espezifikoetan eta deialdian etxebizitza alokatzeko ezarritako aldian errentatzaileari egindako ordainketa guztien banku-egiaztagiria.
Ohiko etxebizitzaren alokatze-kontratuan errentatzailearen kontu-zenbakia agertzen ez bada, kontu horren titulartasun-ziurtagiria aurkeztu beharko da, ordainketa kontu horren zenbakian egiten ari dela egiaztatzeko.
- D. Jabetza Erregistroaren ziurtagiria, jabetzan, jabetza soilean, gozamenean edo azalera-eskubidean dagoen etxebizitzaren jabe ez dela egiaztatzen duena. Ziurtagiria eskabidea aurkeztu baino 30 egun lehenago eman beharko da.

Baldintza horretatik salbuetsita geratzen diren kasuetarako, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- 1. Etxebizitza baten jabetzaren, jabetza soilaren, azalera-eskubidearen edo gozamenaren edozein ehunekoren titular denak, banantze- edo dibortzio-prozesu baten ondoren edo izatezko bikoteak azkentzeko prozesu baten ondoren, judizialki beste bikoteko kideari familia-bizileku gisa esleitu bazaio, hitzarmen arautzailea erantsi beharko du, non egiaztatuko baita beste ezkontideari esleitu zaiola etxebizitzaren erabilera eta banantze- edo dibortzio-epai judiziala, edo Eusko Jaurjaritzaren ziurtagiria, izatezko bikotea azkendu dela egiaztatzen duena.
- 2. Genero indarkeriaren biktima den emakumea izanez gero, egoera hori egiaztatu beharko da honako bide hauetako edozein erabiliz:
 - 1) Genero indarkeriako gertakariak egon direla egiaztatzen duen epai judiziala.
 - 2) Biktima babesteko agindua.

Epaia eta babes-agindua interesdunak diru-laguntza eskatu aurreko bi urteetan eman beharko dira.

- 3. Mugikortasun urri iraunkorra duten desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan, Foru Aldundiaren ziurtagiri bidez egiaztatu beharko dute egoera hori. Gainera, bizi diren etxebizitzak apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan (hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemaren irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena) sarbideei eta jasogailuei buruz jasotako zehaztapenak betetzen ez dituela egiaztatzeko, inguruabar hori egiaztatzen duen txosten teknikoak aurkeztu beharko dute.



4. Etxebizitzak bizigarritasun-baldintzak betetzen ez baditu, inguruabar hori egiaztatzen duen txosten teknikoak aurkeztu beharko da.
 5. Etxebizitza bat jabetzan, jabetza bakarrean, azalera-eskubidea edo gozamen-eskubidea %50 baino gutxiagokoa bada eta beste pertsona edo bizikidetza-unitate batzuen ohiko bizileku iraunkorra bada, bertan bizi diren pertsonen errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko da.
 6. Etxebizitza esleitu bada, ohiko bizileku iraunkorra zen etxebizitza esleitzeko agiri judizialaren edo notarioaren kopia, eta zinpeko aitortzea, etxebizitza hori hirugarren mailako odol-ahaidetasunik edo ezkontza-ahaidetasunik ez duen pertsona bati esleitu zaiola egiaztatzen duena.
- E. Diru-sarreraren ziurtagiria, hurrengo paragrafoetan jasotzen diren kasuen arabera, eskatzaileena, eta C motako bizikidetza-unitate baten barruan egonez gero, baita ezkontzidearena edo izatezko bikotekidearena ere.
- Aitortzeko betebeharrak badaago edo PFEZ aurkeztu bada, honako hauek aurkeztu beharko dira:
1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruz aurkeztutako aitortzearen fotokopia, oinarri espezifikotik eta deialdian zehaztutako aldiari dagokiona.
 2. Gainera, prestazio ez-kontributiboak jasoz gero, horien ziurtagiria.
- PFEZa aitortu beharrik ez bada (eta aitortzeak aurkeztu ez bada), agiri hauek aurkeztu beharko dira:
- Kasu guztietan:
- a) Dagokion ekitaldiko PFEZaren aitortzea aurkeztu ez dela egiaztatzen duen Foru Ogasuneko ziurtagiria.
 - b) Lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak emana.
- Gainera kasu hauetan:
- i. Besteren konturako langileen kasuan, enpresak edo enplegatzaileak emandako dokumentua, kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrerak gordin guztiei buruzkoa, ekitaldi horri dagokiona (10 T eredu).
 - ii. Pentsiodunen edo beken, prestazioaren edo sorospenen jasotzaileen kasuan (Gizarte Ongizateko laguntzak barne), ekitaldi horri dagokion ziurtagiria.
 - iii. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitortzea aurkeztu behar ez duten etxeko langileen kasuan, laneko diru-sarrerak egiaztatzea beharko dituzte, PFEZren atxikipenen ziurtagiri ofizialaren bidez (10T eredu). Halakorik ez bada, frogabaliokidea duten agiri gisa onartuko dira:
 - 1) Lan-kontratuaren kopia, ondoren idatziz egin edo formalizatu bada, soldata jasotzen duena.
 - 2) Soldatak sartu edo ordaindu izanaren bankuko frogagiriaren kopia, enplegu-emailearen izena jasotzen duena.
 - 3) Enplegatzaileak sinatutako soldaten ordainagiriaren (nominen) kopia.
 - 4) Enplegatzailearen edo enplegatzaileen zinpeko aitortzea, horien zenbatekoari buruzkoa.
- F. Erantzukizunpeko adierazpena, jarraian zehazten diren alderdi guztiak jasoko dituen, eta eskatzailearekin batera aurkeztu beharko dena, behar den gainerako dokumentazioarekin batera.
- Etxebizitzak ezarritako gutxiengoko baldintzak betetzen dituela eta eskatzaileak oinarri hauetan eta dagokion deialdian aurreikusitako baldintzak betetzen dituela.
 - Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debekuen eraginpean ez gotea.



- Kontzeptu berari eragiten dion beste edozein erakunde edo organismo ofizialek kudeatutako diru-laguntza edo laguntzarik aldi berean jasotzen ez badu.
- Alokairuan babes publikoko etxebizitzarik ez izatea, eta errenta, prestazio edo laguntza bateraezinik ez jasotzea.
- Etxebizitzaren errentatzailearekin edo errentatzailearen bizikidetzta-unitateko edozein kiderekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko hirugarren mailara arteko familia-loturarik ez izatea.

7. artikulua. — Eskaerak baztertzea

1. Oinarrietan jasotako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak egindako eskaerak baztertuko dira, edo errentan hartutako etxebizitzak oinarri horietan ezarritakoa betetzen ez duenean.
2. Halaber, eskabideak ezarritako epetik kanpo aurkeztuz gero, ez dira izapidetze-ko onartuko.

8. artikulua. — Eskabide osatugabeak edo akastunak

Aurkeztutako eskabidea edo erantsitako dokumentazioa osatugabeak badira edo zuzendu daitekeen beste akatsen bat badute, eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko, gehienez 10 egun baliouduneko epean, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Halaber, adieraziko zaio, horrela egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta artxibatu egingo dela beste izapidetik egin gabe.

9. artikulua. — Izapidetzea eta ebaztea

1. Oinarri espezifiko hauetan jasotako laguntzak emateko organo instruktorea Udaleko teknikariak izango dira.
Instrukzio jarduerak honako fase hauek izango ditu:
 - Aurkeztutako dokumentazioa osorik dagoela egiaztatzea.
 - Diru-laguntzaren onuraduna izateko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.
 - Ebazteko beharrezkotzat jotzen diren txosten guztiak eskatzea.
 - Eskabideen edo eskaeren ebaluazioa, balorazio-irizpide, -modu eta -lehentasunen arabera eginga, hurrengo oinarrian definitzen direnak.
 - Eskabideak ebaluatu ondoren, instrukzio-organoak behin betiko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, eta interesdunei jakinaraziko zaie deialdian ezarritako moduan.
2. Ebazteko organo eskuduna oinarri espezifikoetan zehaztutakoa izango da.
3. Ebazteko gehieneko epea igarotakoan, diru-laguntzaren eskaera ezetsizat joko da, berariazko ebazpenik ematen ez bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.
4. Ebazpenean, gutxienez, honako hauek jasoko dira: onuradunen zerrenda, zenbatekoak eta ukapenen arrazoiketa egokia eta nahikoa, halakorik gertatuz gero.
5. Oinarri hauetan araututako laguntzak onuradunei emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea Derioko Udalak emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura.

10. artikulua. — Zenbatekoa

1. Laguntzak eskabideak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera emango dira, betiere behar bezala beteta badaude eta espedienteak osorik badago aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoa agortu arte.
2. Aurreikusitako zenbateko osoa urtero ezarriko da, eta aplikatuko den aurrekontu-partida adieraziko da. Aldi berean, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003



Lege Orokorraren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 58. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira, salbuespenez kopuru gehigarri bat erabili ahal izango da, eta diru-laguntza emateko beste deialdi bat egin beharko da. Erabilgarri dauden kredituen deklarazio hori eta kreditu horien behin betiko banaketa deialdiaren baliabide berberetan argitaratuko da, eta publizitate horrek ez du esan nahi eskabide berriak aurkezteko epea ireki behar denik, ez eta ebazteko epea berriro zenbaten hasi behar denik ere.

3. Alokatzeko-kontratu bakoitzeko eman beharreko gehieneko zenbatekoak eta zenbateko hori kalkulatzeko prozedura oinarri espezifikoei eta deialdian zehaztuko dira.

11. artikulua. — *Ordaintzeko eta justifikatzeko prozedura*

1. Onartzen den diru-laguntza indibiduala izango da, pertsona fisiko bakoitzeko, berdin dio, C motako bizikidetzaren unitateentzat izan ezik; kasu horretan, oinarri espezifikoek hala aurreikusten badute, laguntza eskaera bakar baten bidez izapidetu ahal izango da.

2. Alokatzeko-kontratu batek onuradun bat baino gehiago ekarri badu, hala nola B eta C motako bizikidetzaren unitateak osatzen dituzten pertsonak, horietako guztiek banan-banan aurkeztu beharko dituzte dagozkien egiaztapenak, oinarri espezifikoek bestela zehazten ez badute.

3. Kontratuaren titularkide bakoitzak ordaindutako alokairuaren zati proportzionalari dagozkion ordainapenak nahiz errenta osoaren ordainapenak onartuko dira, eta ulertuko da dagozkion egiaztapenak aurkeztu duen onuradun bakoitzak dagozkion zati proportzionala ordaindu duela.

4. Diru-laguntzaren ordainketek ezin izango dute, inola ere, justifikatutako ordainapenaren zenbatekoa gainditu.

12. artikulua. — *Onuradunen betebeharrak*

Diru-laguntzen onuradunek Derioko Udalaren diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokorrean oro har jasotzen diren akordioak bete beharko dituzte, eta, zehazki, diruz lagundu daitekeen aldiaren oinarri hauetako baldintza guztiak betetzeaz gain, honako hauek bete beharko dituzte:

1. Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.7 artikuluko onuradun izateko debekuen eraginpean ez egotea.
2. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan beharko dituzte, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Derioko Udalaren zordunak ez dira izango mugaeguneratutako zor likido eta galdagarrietatik.
3. Eskatutako diru-laguntzen berri ematea diru-laguntza eman duen organoari, bai eta helburu bererako emandakoen berri ere.
4. Laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduketan mende jartzea, hala badagokio, baita kontrol-organok eskudunek egin dezaketen finantza-egiaztapeneko eta -kontrolko beste edozein jarduketan mende ere, eta aurreko jarduerak gauzatzeko eskatzen zaien informazio eta dokumentazio guztia aurkeztea.
5. Diru-laguntzaren zenbatekoa, hala badagokio, laguntzak jasotzen diren urteetako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagozkion zergaldiko aitortuen sartu beharko da.
6. Betebehar horietako edozein ez betetzea arrazoi nahikoa izango da laguntza ezeztatzeke eta bidegabe kobratu diren zenbatekoak itzultzeke espedientea hasteko.

13. artikulua. — *Atzera botatzea eta itzultzea*

1. Diru-laguntza baliogabetuko da, eta hala badagokio, bidegabeki jasotako zenbatekoak osorik edo zati batean itzuli beharko dira. Horrez gain, berandutze-interesa eskatuko da diru-laguntza ordaintzen denetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den



egunera arte, baldin eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako kasuren bat gertatzen bada.

2. Itzuli beharreko zenbatekoa, osorik edo zati batean, zehazteko, proportzionaltasun- eta ekitate-printzipioak hartuko dira kontuan, eta, horretarako, kasu zehatz bakoitzaren inguruabarrak hartuko dira kontuan.

3. Itzulketa-espedientea bat etorriko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. tituluaren ezarritako prozedura arauekin, eta, bertan, entzunaldi-izapidea emango zaio interesdunari, 15 egun balioduneko epean.

14. artikulua.—Zehapen erregimena

Arau-hauste eta zehapenen araubidea izango da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigorrezko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen ezarritakoa.

15. artikulua.—Publizitatea eta indarrean jartzea

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean behin betiko argitaratu eta 15 egunera jarriko da indarrean, eta Udalak aldatzea edo indargabetzea erabaki arte egongo da indarrean.